# ABENDU-ALDIAN MISIORA EGUTEGIA

## ERNE EGON

**AZAROAK 27**
ABENDUALDIKO LEHEN IGANDEA

**AZAROAK 28**
Otoitz egin munduko mutiko eta neskatoen alde

**AZAROAK 29**
Gelako mutiko edo neskatoren bati lagundu

**AZAROAK 30**
'Gesto' aldizkaria ezagutu
www.revistagesto.es

**ABENDUAK 1**
Aitagure bat erregatuko dugu misiolarien alde

**ABENDUAK 2**
Deitu aiton-amonei edo bisitatu

**ABENDUAK 3**
Ezagutzen duzu San Frantzisko Xabier?

## PRESTATU BIDEA

**ABENDUAK 4**
ABENDUALDIKO BIGARREN IGANDEA

**ABENDUAK 5**
Misioen kontua aipatu adiskideren bati

**ABENDUAK 6**
Ipini jaiotza. Gaur ez dugu eskolarik, aprobetxatu!

**ABENDUAK 7**
Gaur, bereziki, etxeko lanetan laguntzea dagokizu

**ABENDUAK 8**
Otoitz egin Maria Birjinari, gaur bere eguna da-eta

**ABENDUAK 9**
Gaurko bazkarian gustuko ez dugun zerbait badago, ahalegindu jaten,

gaur ezer jango ez duen makina bat haur dagoela gogoratuz

**ABENDUAK 10**
Margotu eta prestatu itsulapiko misiolaria

OMP webetik jaitsi

## BANA DITZALA

**ABENDUAK 11**
ABENDUALDIKO HIRUGARREN IGANDEA

**ABENDUAK 12**
Gau honetan otoitz egin etxeko jaiotzan

**ABENDUAK 13**
Lagundu kalean dagoen norbaiti

**ABENDUAK 14**
Idatzi zure gutuna Errege Magoei

OMP webetik jaitsi

**ABENDUAK 15**
Gaur bakarrik dagoen gelakidearengana hurbildu

**ABENDUAK 16**
Hartu astia zure jokaera nolakoa den aztertzeko

**ABENDUAK 17**
Prestatu turroia Eguberrietarako. Ikusi errezeta hemen.

## BERAK SALBATUKO DU BERE HERRIA

**ABENDUAK 18**
ABENDUALDIKO LAUGARREN IGANDEA

**ABENDUAK 19**
Orri-markatzailea opurituko dizugu zure liburuetarako

(infancia misionera.es delakotik jaitsi)

**ABENDUAK 20**
Konbentzitu guraso eta anai-arrebak gaur elkarrekin otoitz egiteko

**ABENDUAK 21**
Prestatu "JESUS JAIOKO DA" kartela eta ipini leihoan, balkoian...

**ABENDUAK 22**
Haur Misiolariak erakundearen marrazki-lehiaketan parte hartu

UNO PARA TODOS Y TODOS PARA ÉL
CONCURSO DE DIBUJO

(gehiago jakiteko, infancia misionera.es)

**ABENDUAK 23**
Otoitz egin zure parrokian jarduten duten pertsonen alde: apaizak, fraile eta mojak, apaizgaiak...

**ABENDUAK 24**
Egun hau familiarekin bizi eta erakutsi zenbat maite dituzun

## JESUS IZENA JARRIKO DIOZU

**ABENDUAK 25**
EGUBERRIAK

**URTARRILAK 1**
Maria, Jose eta haurra askan etzanda aurkitu zituzten

*Gaurko Ebanjelioak honetaz hitz egiten digu:*

*a) Atzoko afaria gozoa zegoen*
*b) Artzainak haurra gurtzera joan ziren*
*c) Errege Magoak bidean dira*

*Markatu aukera zuzena. Erraz erantzungo duzu mezetara joan bazara.*

**URTARRILAK 6**
Badatoz Errege Magoak Jesus gurtzera!

**URTARRILAK 8**
Jaunaren bataioa:

*Nolakoa izan zen zure bataio-eguna? Galdetu guraso eta aita-amabitxiei eta egin egun haren marrazkia.*

## BAT DENONTZAT ETA DENOK BERETZAT

**URTARRILAK 15**
HAUR MISIOLARIEN EGUNA

# ABENDU-ALDIAN MISIORA EGUTEGIA



Obras Misionales Pontificias

Haur Misiolariak

## MUNDUKO HAURREN SAREA HAURREI LAGUNTZEKO

Abendualdiko egutegiari jarraitu badiozu, Haur Misiolariak zeu zarela ikusiko zenuen. Baina beste herrialdeetako haurrek ere Jesus gure adiskidea dela kontatzen dute eta anai-arrebok elkarri laguntzen diogu. Otoitz egin, lana eskaini et dohainak banatzen ditugu. Sinetsi, bizi eta banatu. Haur Misiolariak delakoari buruz gehiago jakiteko:
www.infanciamisionera.es
Hainbat sorpresa dugu zuretzat. Haurrek haurrei laguntzen diete!

Argitaratzailea: OMP ESPAÑA. Ilustrazioak: Pablo Rosendo

www.infanciamisionera.es



AZAROAK 27

ABENDUALDIKO LEHEN IGANDEA

## ERNE EGON

***Prest egon, bada, zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.***

Zerbait gertatuko da. Oraindik ezin dizut zer den esan, baina OSO GARRANTZITSUA da eta ezinbestekoa da zu prest egotea. Bisitan joan zaizun adiskideren bat etxean hartu aurretik dena garbi eta txukun izan nahiko duzu. Une honetan, bihotza izan behar duzu txukun eta garbi. Adi, ez arretarik galdu!



**Asteko erronka:** Beharbada ez zara konturatu, baina zure inguruan bada behar zaituen pertsonarik: ikaskideak, lehengusuak edo gurasoak. Ireki begiak eta bihotza eta lagun iezaiezu.

**Esaiozu Berari:** "Jesus, lagun iezadazu esna egoten, egunez egun nire inguruan ikus zaitzadan eta nire beharra duenari baiezkoa eman diezaiodan".

ABENDUAK 4

ABENDUALDIKO BIGARREN IGANDEA

## PRESTATU BIDEA



***Ahots bat oihuka ari da basamortuan: "Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari".***

Ba al dakizu zer izan nahi duzun nagusitan? Seguruenik hainbat aldiz pentsatu duzu, eta oraindik baduzu denbora jakiteko. Edozer aukeratuta ere, ez ahaztu Jesusen mandatari zarena eta Berak bidali zaituela guztiak maite dituela jakinarazi diezaiezun gainerako guztiei. Jesus jaioko da, baina zu, Joan bezala, aurretik zoaz. Horregatik, bi lan dituzu orain: Jaunari bidea prestatu, hau da, zure bihotza prestatu, eta besteei beren bihotza prestatu egin behar dutela ohartarazi.

**Asteko erronka:** Zeure barruan begiratu. Seguruenik gauza gehienak primeran egingo dituzu, baina baliteke zerbait hobetzeko egotea ere. Pentsatu gurasoekiko, anai-arrebekiko edo adiskideekiko dituzun makaltasunetan eta hobetzen saiatu.

**Esaiozu Berari:** "Jesus, zain naukazu. Lagun iezadazu bidea eta bihotza prestatzen, harrera egin diezazudan eta gustura egon zaitezen".

ABENDUAK 11

ABENDUALDIKO HIRUGARREN IGANDEA

## BANA DITZALA

***Bi tunika dituenak bana ditzala ez duenarekin; jatekoa duenak egin beza gauza bera.***

Gogoeta eginez gero, bizitzeko behar duguna baino askoz gehiago dugula ikusiko dugu eta batzuetan beste hainbat gauzaren irrikaz gaudela. Askotan ez ditugu nahiko baloratzen ditugun gauzak eta, ondorioz, oinarria, garrantzitsuena, galdu egiten dugu. Ohartu zara ezer ez duen jendeaz?

**Asteko erronka:** Aste honetan, gehiago banatu behar dugu. Banatu zure paga behar duen norbaitekin. Banatu irribarrea ikastetxeko umeen artean eta banatu maitasuna banatzea nekeza egiten zaizun norbaitekin.

**Esaiozu Berari:** "Jesus, zure antzeko izan nahi dut. Begira diezaiedala pertsonei Zeuk begiratzen diezun bezala, maitasunez beteriko bihotzarekin".



ABENDUAK 18

ABENDUALDIKO LAUGARREN IGANDEA

## BERAK SALBATUKO DU BERE HERRIA

***Semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena, bere herria bekatuetatik salbatuko baitu.***

Jainkoak Maria aukeratu zuen Jesusen ama izateko, munduarentzako argiaren eramaile izateko. Eta baietz esan zuzen hark! Jainkoak Zuri eta kristau guztioi dei egiten digu Jesus eraman diezaiogun bidean aurkitzen ditugun guztiei. Mariak baietz esan zuen uste osoz, eta zuk, konfiantza osoa ote duzu Jainkoarengan baietz esateko? Ohartu zara marrazkiko haurraren itzalaz? Badakizu nor den?

**Asteko erronka:** Jesus jaio aurreko azken astean gaude, baina seguruenik egongo da norbait horren berri ez duenik. Aste honetan, kartela prestatu behar duzu Jesus badatorrela iragarriz, eta etxeko leiho edo balkoian eskegi.

**Esaiozu Berari:** Jesus, emaidazu konfiantza zure atzetik nekatu gabe, leialtasun eta pozez jarraitzeko. Nire ekintzetan zure itzala isla dezadala.

